

## Osasun Biltzarra Bilbon

MAIATZAREN 18 ETA 19AN Osasun-  
goa Euskalduntzeko Erakundeak  
22. Osasun  
Biltzarra  
egingo du  
Bizkaiko hiri-  
buruan. Hiru  
gai jorratuko  
dituzte hain-  
bat hitzaldi  
eta mahai-  
ingururen



bidez: *Bizitzaren medikalizazioa, Osasun-langileak gaixotzen direnean eta Osasun-langileak eta teknologia berriak.*

## Euskararen Jatorriaren VII. Biltzarra Diman

MAIATZAREN 12AN egingo dute Diman (Bizkaia) Euskararen Jatorriaren VII. Biltzarra. Aurten etnografia landuko dute egun osoko jardunaldietan, hizkuntzalaritzari egin diezaioketen ekarpenez hausnartzeko.

Joxemiel Barandiaran eta Caro Barojak hizkuntzalaritzari ekarritakoa aztertuko dute. Felix Zubia-gak etnografiaren sustraietara joko du eta Javier Goitia geografoa erro galduer buruz arituko da. Orain dela gutxi argitaratu den *Euskararen Jatorria: enigma europar bat* dokumentalak ikusiko dute, euskararen jatorriaz dauden aurreiritziak aztertzeko. Hitz eta pitz aritzeaz gain, Dimako Baltzola koba eza-guna bisitatuko dute. Egunaren amaieran Vahan Sarkisian, Bittor Kapanaga eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* omenduko dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Chicago 1886-Euskal Herria 2012

Aste honetan mundu osoan ospatu da Maiatzaren Lehena, duela 126 urtetik Lanaren Eguna moduan ezagutzen dena. Data tragiko eta heroi-koa gogoratu da, estatubatuar batzuk heriotzara kondenatuak eta urkatuak izan baitziren egun horretan. Zortzi orduko lanegunaren alde borrokatzeagatik kondenatu zituzten; garai haietan egunean 18 orduz egiten zuten lan langileek. AEBetan 1886ko maiatzaren 1ean greba orokorra egin zen zortzi orduko lanegunaren alde eta epizentrotan Chicago izan zen. Polizia basaki oldartu zen. Kaosaren erdian, bomba bat zartatu zen, ustez poliziaren kontra jaurtitakoa eta ondorioz sei langile atxilotu eta epaitu zituzten, nahiz eta haien erruduntasuna sekula ez zen frogatu. Sei langileak heriotzara kondenatu zituzten; haietako biri azkenean zigorra kommutatu eta bizitza guztian derrigorrez lan egitera kondenatu zituzten. "Chicagoko martiriak" izan ziren. Lau urte geroago, 1890ean, Maiatzaren Lehena ospatzen hasi ziren mundu osoan.

Gaur, XXI. mendean, espekulatuzaile eta putre kapitalistak —merkatuak—, txandakako gobernuak lagunduta ongizate estatua desegiten ari dira: prekarietatea, lan diskriminazioa, kaleratze merkeak, langabeziaren hazkundera, osasungintzako, hezkuntzako eta immigrazio politikako murrizketa basatiak... Azken hamarkadetan langile klaseak eta herri sektoreak sufrimenduz eta borroka lortutako ongizatea da. Zortzi orduko lanaldiaren aldeko borroka hartatik 126 urte pasa direnean, badago Euskal Herrian lanaldia luzatu eta gutxiago kobratzea defendatzen duenik. Atzeraka goaz. "Geldi!" esateko ordua da. Chicagoko martiri haiek egin bezala. Ezkerraldeko gure meatzariek egin bezala —etxebizitza duinaren alde greba luze eta handietan lehena egin zuten 1890ean—. Milaka euskal langile orain arte egin izan duten bezala. Azkeneko greba orokorrean bezala. Erresistentziari eutsi behar zaio, kapitalismoaren aurka, banku handien aurka eta euren kudeatzaile politikoen aurka. Atzera pausorik ez!

Juan Mari Arregi



## BAHEA

[Enpresen sareko estrategia linguistikoari buruzko jardunaldietan hartu zuen parte Txerra Rodriguezek \(\[www.blogak.com/garaigoikoa\]\(http://www.blogak.com/garaigoikoa\)\). Euskal Herriko 20 enpresa aliriztira aukeratuta ondorio hauek atera ditu:](#)

“— Webguneetan enpresa gehienek eleanitz jokutzen dute. Bi hizkuntza gutxienez denek erabiltzen dituzte. Eta guztietan (kasu batean izan ezik) euskarazko bertsiotxo dago.

— Sare sozialetan, aldiz, enpresa gehienek elebakar jokutzen dute. Salbuespenak badaude, baina gehienak sare sozialetan hizkuntza bakarrean aritzen dira: gaztelaniaz jakina (nahiz eta horietako askok nazioarteko merkatuari begiratzen omen dioten).

Bi ondorio horiek nire arloarekin (soziolinguistikarekin) harremanetan jarri nituen berehala: sinplifikatuz, esparru formalenean euskarak presentzia duina du, baina informaletan ez. Euskararen berreskuratzean ere egin du aurrea euskarak nabarmen esparru formaletan, baina ez horrenbeste informaletan (egile batzuek atzera ez ote duen egin barruntatzen dute)”.